

DEUSTURA OSASUN BILA

1

Urriaren zazpikoa
San Pelitzisimokoa:
Bizian Gorak kurtso barria
hasierakoa.
Eleiza apartekoa,
ospakizun gogokoa;
barriro pozik emon genduan
aurten baiezkoa.

2

Santuaren erantzuna
beti lez da osasuna:
Gorputzez sendo, arimaz bero
fededun zentzuna.
Hau pozgarrizko eguna
indarrez bete gaituna,
ume txiki lez Jesusi baietz
emon deustoguna.

3

Badogu beste bat Deustun
ta zenbat laguntzen deuskun!
Bai, Aita Patxi Bizian Goran
lehendik da ezagun.
Patxi, egiguzu lagun
zintzo jokatu dagigun,
ondo dakigu zein lagun ona
zeruan daukagun.

4

Batu gara berrehun kide
ta bagoaz bidez bide,
Bizian Gorak eginak gara
guztiok senide.
Aurten konturatu zaitte
zeuretzat dala konbite:
Gura badozu, bada lekua;
zatoz, adiskide.